

# SARRIKO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea

Facultad de Economía y Empresa



2024 33.ZK.



NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL





## FAKULTATEKO DEKANO TALDEA

**Jon Barrutia Güenaga**

Dekanoa

**Henar Díez Sánchez**

Ekonomia eta Enpresa  
Fakultateko Idazkaria

## DEKANOAREN TALDEA (EGOITZA)

**Izaskun Ipiñazar  
Petalanda**

Egoitzako Dekanorde  
Koordinatzailea eta Gizarte,  
Etengabeko Prestakuntza  
eta Enpresa Harremanetako  
Dekanordea

**Jon Charterina Abando**

Nazioarteko Harremanetako eta  
Mugikortasuneko Dekanordea

**Javier García Enríquez**

Akademi Antolakuntzako  
Dekanordea

**Unai Tamayo Orbeozo**

Euskara, Ikasleen eta  
Enplegarritasuneko  
Dekanordea

**Javier Corral Lage**

Kalitateko, Ikasketa  
Berrikuntzako eta  
Ekintzailetzako Dekanordea

**Elena Martínez Tola**

Graduondoko Dekanordea

# Aurkibidea

|                                               |           |
|-----------------------------------------------|-----------|
| <b>2022-2023 Promozioaren Graduazioa</b>      | <b>4</b>  |
| <b>Jarduerak</b>                              | <b>5</b>  |
| <b>Jardunaldiak, Kongresuak eta Mintegiak</b> | <b>8</b>  |
| <b>Elkarlana Ekonomistakekin</b>              | <b>14</b> |
| <b>Enpresekiko harremana</b>                  | <b>16</b> |
| <b>Sariak, Aintzatespenak eta Harrerak</b>    | <b>17</b> |
| <b>Euskararen Eguna</b>                       | <b>21</b> |
| <b>Bitxikeriak</b>                            | <b>22</b> |

***Gizartearen eta enpresaren eskakizun berrietara egokitzea funtsezko eskakizuna da gazteentzat gorantz doan lan merkatuari arrakastaz erantzun ahal izateko. Gaur egungo lan egoeraren joera hori baliatu egin behar da enplegua areagotzeko, bai eta gure egresatuen prestakuntzari lotutako enplegua eta kalitatezko enplegua areagotzeko ere. Laburbilduz, gradu eta graduondokoen eskaintza errealitate eta gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko beharraz hausnartzeko unea da.***



**Jon Barrutia Güenaga**

2024. urtea USLO legearen berrikuntzak eta 23-26 unibertsitate plana gauzatzeko urtea izan da. Zailtasunak izan ditugu 2023. urtean aurre egin beharreko berrikuntza horiek ezarritako testuingurura egokitzeko, baina itxi berri dugun ikasturtean horiek saihesten ikasi dugu.

Nolanahi ere, irtenbide estrukturalagoak behar dituzten erronkak izaten jarraitzen dute. Hala, batetik, irakasleak erakartzeko ildo egoki bat taxutu behar da. IRlen ibilbidea hasteko dauden aukeretarako hautagairik ez izateak hala egiaztatzen du. Ildo berean, ezin dugu ahaztu irakasleek gero eta joera handiagoa dutela erretiroa hartzeko. Bestalde, TEKAZELen EPEa antolatzeke aha- legin handiagoa egin behar izan dugu.

Eraldaketa soziala iristen diren ikasle berrien bidez ere egiaztatu daiteke; izan ere, digitalizazioa eta AA oso presente dauden irakaskuntza modu berriak eskatzen dituzte. Hala, gizartearen eta enpresaren eskakizun berrietara egokitzea funtsezko eskakizuna da gazteentzat gorantz doan lan merkatuari arrakastaz erantzun ahal izateko. Gaur egungo lan egoeraren joera hori baliatu egin behar da enplegua areagotzeko, bai eta gure egresatuen prestakuntzari lotutako enplegua eta kalitatezko enplegua areagotzeko ere.

Testuinguru horretan lehia gero eta handiagoa da; prestakuntza eskaintza ugari daude bai gure eremuan, bai eremu alternatiboetan.

Antzeko egoera dugu bizitza osoko prestakuntzari dagokionez. Ikuspegi horretatik, Sarriko potentzial handia duen etapa berri bat hasi da: mikrokredituzialen etapa. Horiei esker, prestakuntza eskaintza modularrak eta oso espezializatuak egin ahal izango dira, denboran laburragoak, gaur egungo graduondokoa ez bezala.

Laburbilduz, gradu eta graduondokoen eskaintza errealitate eta gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko beharraz hausnartzeko unea da.

Otsailean eman ziguten kalitate sistema ezarri izanaren egiaztapen instituzionalak are hobeto kokatzen du Fakultatea eta prestakuntza ekimenak geure gain hartzeko aukera ematen digu.

Aipatzekoa da Shanghaiko rankingak ekonomia graduari eman dion kalifikazioa, munduko 500 gradu onenen artean kokatu baitu.

Horregatik guztiagatik, Sarriko biziagotu egin behar du gizartearen duen presentzia eta den bezala agertu behar du: ezagutza aurreratuaren sorkuntza eta transmisioan erreferentea.



# 2022-2023 promozioaren graduazioa



Jardunaldiak ahalegin akademikoaren bukaera sinbolizatu zuen, baina baita Ekonomia eta Enpresa Fakultate osoaren harrotasuna ere, egresatu berriei agur esatean.

Inés Macho Stadler, Jon Barrutia, Eva Ferreira, Miren Artaraz, eta Iñaki Ruíz.



2024ko apirilaren 23an, [Ekonomia eta Enpresa Fakultateko](#) (Sarriko) Areto Nagusia emozioz eta harrotasunez bete zen, **65. graduazio ekitaldia** zela eta. Ekitaldi solemnea izan zen, oso esanguratsua; izan ere, **2022/2023 promozioak** etapa akademiko baten amaiera eta beren ibili profesionaletarako aukera berrien hasiera ospatu ahal izan zuen.



Ekitaldia graduatuen ahalegin, dedikazio eta talentuaren isla izan zen, eta senideak, lagunak eta irakasleak izan ziren bertan haiekin, egun ahaztezin hartan. Areto Nagusia bero-bero zegoen txalo, irribarre eta esker oneko hitzen artean, eta horrek guztiak Fakultatearen komunitate sentsazioa eta bikaintasun akademikoarekiko konpromisoa indartu zituen.



Ekitaldiari hasiera emateko, agintaritza akademikoek ongietorria egin zieten bertaratuiei. Bertan izan ziren **Jon Barrutia** (Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa), **Eva Ferreira** (UPV/EHUko errektorea), **Miren Artaraz** (Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria) eta **Iñaki Ruíz** (Ekonomisten Euskal Elkargoko presidentea), eta graduatutako belaunaldiak erronkaz



eta aukeraz betetako etorkizuna eraikitzeko duen rol garrantzitsua azpimarratu nahi izan zuten. Ikasleek ere hitz egiteko aukera izan zuten. **Sara Cabot Lealek** guztien izenean hitz egin zuen, eta eskerrak eman zizkien familiei, kideei eta irakasleei, beren baldintzarik gabeko babesagatik. Halaber, azpimarratze-koak dira **Inés Macho Stadler** promozioaren amabitxiaren inspiraziozko hitzak. **Inés Macho Stadler** doktorea (École de Hautes Études en sciences sociales; Paris, 1989), katedraduna (Universitat Autònoma de Barcelona) eta Research Professor (GSE, Barcelona) da.

Ekitaldiari amaiera emateko, diplomak banatu ziren. Emozioz beteriko amaiera borobila izan zen, kapitulu baten amaiera eta abentura berrien hasiera markatu zuena. Jardunaldiak ahalegin akademikoaren bukaera sinbolizatu zuen, baina baita Ekonomia eta Enpresa Fakultate osoaren harrotasuna ere, egresatu berriei agur esatean.

65. graduazio ekitaldia, zalantzarik gabe, egun ahaztezina izan zen, bai ikasleentzat bai haien garapenean lagundu dien komunitate akademikoarentzat. Zorionak 2022-2023 promozioari!



# Harrera bikaina “Sarriko, zero hondakin” proiektuari



Unibertsitatean, ingurumen jasangarritasuna unibertsitateko kide guztiak eta, bereziki, ikasleak kontzientziaztean zentratzen da. Zentzu horretan, **Lidia García, Maite Ruiz** eta **Yolanda Chica** irakasleek, beste urte batez, “Sarriko Residuos Cero / Sarriko, Zero Hondakin” erronka kolektiboarekin aurrera jarraitu dute, i3lab 24-36, ERRONKA BERRIA proiektuaren esparruan. Erronka Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (egoitza) ikasleei zuzentzen zaie, eta

haren helburua da parte hartzaileek jasangarritasunaren arloko eskumenak garatu eta eskuratzea, eta Fakultatean aldaketa eragile gisa jardutea.

Erronka 2022/2023 ikasturtean abiarazi zen, **Patxi Casal** Alzola Basque Water-eko zuzendari nagusiaren konferentzia batekin, zeinetan uraren ontzi eta bilgarrien ekodiseinuari buruz hitz egin zuen. 2024/2025 ikasturte honetan, ikasleen parte hartzeak espektatibak gainditu ditu: guztira 18 ikasleek parte hartu dute aktiboki erronkan, lantaldeetan banatuta. Ekimenaren jarraipena ikasleekiko bilera dinamikoen bidez egiten da, Challenge Based Learning (CBL) edo erronketan oinarritutako ikaskuntza metodologiari jarraikiz.

Eta lan horri guztiari esker, ondorioztatu zen Fakultatean hondakinak hobeto kudeatu behar direla. Horretarako, hondakinen edukiontziak lekuz aldatu behar dira, edukiontzi mota bakoitza hobeto identifikatu behar da, eta informazio eta kontzientziazio kanpaina bat egitea ere komeni da. Egun, komunikazio kanpaina lantzen ari dira, eta otsailetik aurrera jarriko da martxan Fakultatearen zenbait espaziotan. Halaber,

edukiontziak lekuz aldatzeari lotuta, identifikazio kartel berriak egin behar direla hauteman da, eta ikasleek horiek diseinatzeko lanari ekin diote.

*Lidia García*



# Laneko etorkizunerako gako gaitasunei buruzko mahai ingurua: topaketa inspiratzailea Sarrikon

Helburu jakin batzuk betetzeko, hala nola gaitasunak eskuratzea, epe luzeko planak prestatu eta ekintza zehatz eta jarraituak egin behar dira helburu horietara iristeko.

Abenduan, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusiak mahai nguru aberasgarria jaso zuen. Bertan, enpresen arloko eta arlo akademikoko ordezkariak eztabaida egin zuten etengabe bilakatzeko ari den lan merkatuko erronkei aurre egiteko ikasleek garatu behar dituzten gaitasunei buruz. Hasteko, **Jon Barria** Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanok ongietorria egin zien guztiei, eta bilera **Javier Corral-Lage** Kalitate, Ikasketa Berrikuntza eta Ekintzailetzako dekanordeak moderatu zuen.

Topaketan, bereziki azpimarratu ziren belaunaldi berrientzat oinarritzako diren hiru gaitasun mota:

- **Jasangarritasunerako zeharkako gaitasunak:** erantzukizun sozialarekin eta ingurumenekoarekin lotutako gaitasunak, garapen jasangarriko helburuekin (GJH) lerrotatutako garapen ekonomikoa sustatzeko ezinbestekoak.
- **Gaitasun digitalak:** ingurune digitaletara eta teknologia berrietara egokitzeko beharrezkoak diren gaitasun teknikoak eta estrategikoak, erakundeak eraldatzeko ezinbestekoak.
- **Soft skill gaitasunak:** "gaitasun bigun" gisa gaizki izendatuak. Komunikazioa, enpatia, malgutasuna, taldeko lana, mentalitate ireki eta

berritzailea, etengabeko prestakuntza eta antzeko alderdiak dira. Gaitasun horiek, gaitasun teknikoaren osagarri izateaz gain, ezinbestekoak ere badira jardun profesionalean.

Hitzaldien artean **Saletta Cuñado Cabanaren** (Arteche) hitzaldia aipatu beharra dago; gaitasunak enpresen benetako beharrek inbentzeari eta haiek gartzeari buruzko bere esperientzia partekatu zuen. Horrez gain, hauek ere egin zuten beren ekarpena: **María José Ferrer Martínez** (MAPFRE), **Marta Martínez Latatu** (CEBEK), **Erlantz Aiur** (UPV/EHUren Enplegu Gunea), eta **Iluminada Aparicio Andrés** (Ekonomisten Euskal Elkargoa). Horiek guztiek azpimarratu zuten oso garrantzitsua dela epe luzeko planak egitea eta etengabeko ekintzak ezartzea helburu pertsonalak zein profesionalak lortzeko. Hizlariak esandakoaren arabera, konstantzia, konfiantza eta konpromisoa bezalako balioetarako etengabeko ikaskuntzaren bidez besterik garatu ezin diren gako gaitasunak behar dira. Izan ere, etengabe aldatzen ari den ingurunean, gure Fakultateko ikasleak egokitu egin behar dira, bai eta bilakatu ere, erronka berriei aurre egin ahal izateko. Ezagutzak eta gaitasunak etengabe eskuratzeak, gaitasun kalitate horiek indartzeaz gain, ikasleei ahalbidetzen die egoera konplexuen aurrean segurtasun eta eraginkortasun handiagoz jokatzeko; eta, horren bidez, halaber, harreman sendoagoak eta garapen pertsonal eta profesional irmoagoa lortzen dute.

Halaber, azpimarratu egin zen garrantzitsua dela zerbait ez dakigula onartzea, hori baita lehen pausoa lan batean ikasteko. Ziurgabetasuna eta ezagutzarik eza onartzea ezinbestekoa da ikaskuntzarako atea irekitzeko. Jarrera horri esker, mentalitate kurioso eta irekia lor daiteke, gaitasun eta kontzeptu berriak eskuratzea erraztuz. Ezjakintasuna oztopo gisa ikusi ordez, proposatzen da hazi eta etorkizuna zabaltzeko aukera gisa ikustea. Ikasleak animatu egin behar dira

ezezaguna arakatzera, zalantzan jartzera eta desafiatzera, horrela ikaskuntza sakinagoa eta esanguratsuagoa lortzen da lan merkatuaren barruan. Hori dela eta, **Ekonomistak** eta antzeko elkarteek eta UPV/EHUK berak, enplegarritasun zerbitzuaren bidez, ikasleak laguntzen dituzte garapen pertsonal eta profesionaleko prozesu horretan.

Ikasle batek modu inspiratzailean laburbildu zuen jardunaldia: "Jardunaldi aberasgarria izan zen, eta bereziki gustatu zitzaidan Erlantz Aiurren amaierako esku hartzea. Hark esan zuen helburu jakin batzuk betetzeko -hala nola, gaitasunak eskuratzea- epe luzeko planak prestatu eta ekintza zehatz eta jarraituak egin behar direla helburu horietara iristeko".

Ekitaldia hausnarketa partekatu honekin laburbildu daiteke: etorkizuneko profesional gisa ikasi eta haztearen poztasuna. **MAPFRE**, **Arteche** eta antzeko lehen mailako enpresek, **CEBEK** eta **Ekonomistak** bezalako erakundeek eta gure unibertsitateak berak bat egin zuten mahai inguru batean, non gako gaitasunak garatzearen garrantzia azpimarratu zen etengabe eraldatzen ari den gizartearen erronkei aurre egin ahal izateko.

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei; jardunaldi inspiratzailea eta ikaskuntzaz beterikoa izan zen.

*Javier Corral-Lage*

# Ekonomia eta Enpresa Fakultateak 2024ko STARTInnova-ren finala jaso du, non talentu gaztea gailendu den ekintzailetzaren esparruan



STARTInnovaren hamaikagarren edizioaren final zirrargarria Ekonomia eta Enpresa Fakultatean egin zen otsailaren 27an. Ekitaldiak guztira aurkeztutako 198 proposamenen artean 10 proiekturik onenak bildu zituen, eta gazteen artean ekintzailetza sustatzeko ezinbesteko ekitaldi gisa finkatu zen.

Epaimahaia profesional eta akademiko nabariak osatu zuten: **Javier Corral-Lage, Arantza Álvarez, Saioa Urizar, Mila Gallastegi eta Antonio Barrena**. Epaimahaikideek proposamenak ebaluatu zituzten, bideragarritasuna, berrikuntza eta eragin potentziala kontuan hartuta; eta proiektu finalisten kalitate eta sormen handia nabarmendu zituzten.

Jardunaldian zehar, taldeek askotarikoko ekimenak aurkeztu zituzten: bidaia proposamenak egiteko AA erabiltzea, app-ak erabiltzea Interneteko orrialde jakin batzuen erabilera okerra saihesteko, eta abar. Proiektu nabarmenen artean honako hauek zeuden: Plentziako Uribe Kosta institutuak, 16 eta

17 urtekoen kategoriaren barruan, bideragarritasun plan bat aurkeztu zuen Alzheimerra duten pertsonak zaindu eta laguntzeko enpresa bat sortzeko, taldeko jarduera eta material pertsonalizatuen bidezko terapiak uztartzearen bitartez. Eta Barakaldo LHk, 18 urtetik gorakoen kategorian, modan zentratutako espazio bat proposatzeko negozio plana aurkeztu zuen. Espazio horretan desfileak egin eta aldi baterako dendak jarriko litezke, eta biblioteka bat ere egongo litzateke; baina, horrez gain, jantzigintzako tailerreko ekipoak orduka alkatatu ahalko lirateke. Eta horiek izan ziren zegokien kategoriako irabazleak, ikuspegi berritzailea izateagatik eta egungo premiak artatzeko gaitasuna erakusteagatik.

Ekitaldia, ideia argien erakusleihu iza-teaz gain, ikasle, irakasle eta gazteen ekintzailetza sustatu nahi duten profesionalen arteko topagunea ere izan zen. Ekonomia eta Enpresa Fakultateak zorian eman nahi dizkie parte hartzaile guztiei beren ahalegin eta sormenagatik. Halaber, eskerrak eman nahi

dizkio STARTInnovari, gure erakundea hautatzeagatik ekitaldi garrantzitsu hori jasotzeko.

Final horren bidez, STARTInnovak hezkuntzaren arloan ekintzailetzari lotutako gaitasunak garatzeko plataforma gisa duen rola berretsi egin du, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateak etorkizuneko liderrak prestatzearekin eta gizartearen eraldatuko duen proiektuen sustapenarekin duen konpromisoa erakutsi du berriro ere.

*Javier Corral-Lage*

# Ekonomia, Enpresa eta Generoa jardunaldien VIII. edizioa

«Emakumeen giza eskubideak eta enpresen erantzukizuna» izan zen jardunaldien gaia, enpresek emakumeen giza eskubideak errespetatu eta babesteko, eta edozein urraketa erreparatzeko duten erantzukizuna jorratzeko.



2024ko martxoaren 13an, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areta Nagusian (Sarriko), UPV/EHUko Enpresa Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Sailak Fakultateko Berdintasun Batzordearen laguntzarekin antolatutako Ekonomia, Enpresa eta Generoa jardunaldien zortzigarren edizioa egin zen.

«Emakumeen giza eskubideak eta enpresen erantzukizuna» izan zen jardunaldien gaia, enpresek emakumeen giza eskubideak errespetatu eta babesteko, eta edozein urraketa erreparatzeko duten erantzukizuna jorratzeko, abiapuntu gisa Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko Nazio Batzuen Printzipio Gidariak hartuta.

Ekitaldia **Irati Basoredo Otzerinjaurregi** aurkeztu zuen (bera eta Itziar Villafañez Perez dira antolatzailerak, biak Fakultateko Merkataritza Zuzenbideko irakasleak), eta irekiera hitzaldiak **Izaskun Ipiñazar Petralandak** (egoitzako dekanorde koordinatzailea eta Gizarte, Etengabeko Prestakuntza eta Enpresa Harremanetako dekanordea) eta **Elena Leñena Mendizabalek** (UPV/EHUko Berdintasunerako zuzendaria) eskaini zituzten.

Lehen hizlaria **Nerea Magallón Elósegui** izan zen, UPV/EHUko Nazioarteko

Zuzenbide Pribatuko Ramón y Cajal ikertzailea eta irakaslea. Gaiaren ikuspegi orokorra azaldu zuen. Besteak beste, enpresek giza eskubideen arloan bete beharreko «behar adinako arretaren» kontzeptua eta edukia azaldu zituen, baita Nazio Batuen Printzipio Gidariak eta beste kontu orokor batzuk ere. Ondoren, **María Chiara Marullo** hartu zuen hitza (irakasle kontratatua, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko doktorea -Jaume I.a Unibertsitatea- eta Enpresak eta Giza Eskubideak Sareko koordinatzaile atxikia). Hitzaldian gaiaren genero ikuspegia partekatu zuen, eta bereziki jorratu zituen emakumeen giza eskubideen urraketak eta generoaren dimentsioak arazo nagusian. Eta, azkenik, **Carolina Pérez Toledok** hitz egin zuen (CEBEK Bizkaiko Enpresarien elkarteko presidentea, eta Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko presidente ere izandakoa). Hitzaldian, erakundeak eta Bizkaiko enpresek giza eskubideak, eta bereziki emakumeenak, babesten izandako esperientziaren nondik norakoak azaldu zituen. Hiru hitzaldien ostean, elkarriketa irekia abiarazi zen, eta bertaratuen parte hartzea handia izan zen.

Jardunaldia Europako Batzordearen eta Kontseiluaren 2024/1760 (EB) Zuzentaraua, enpresek jasagarritasunaren

arloan bete beharreko behar adinako arretari buruzkoa, onetsi aurretik egin zen. Hain zuzen ere, Zuzentaraua ekainaren 13an onetsi zen. Hizlariak neurri horren zain zeuden, baina kautelaz, bai baitzekiten gabeziak ere izan zitzakeela. Hauek dira argitaratu zenetik hautemandakoak: aplikazio pertsonalaren esparru mugatua (tamaina handiko enpresak), eskuduntza zabala barne legegileei legegintza garapenari dagokionez, eta barne ordenamendu juridikoek eman beharreko gutxieneko babes mailaren zehaztasun urria. Itxaron beharko dugu estatu kideek barne neurriak hartzera. Hori, printzipioz, 2026ko uztailaren 26a baino lehen gertatu behar da.

*Irati Basoredo*



# Irakaskuntza Berrikuntzaren Jardunaldi arrakastatsuak Ekonomia eta Enpresa Fakultatean

Jardunaldiek  
Ekonomia eta  
Enpresa Fakultateak  
Europako Unibertsitate  
Eremuaren eskarierara  
egokitzerakoan  
erakusten duen  
lidergoa indartu zuten.



**2024ko ekainaren 27an, Irakaskuntza Berrikuntzaren Jardunaldiak** egin ziren Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Ekitaldiak agerian jarri zuen irakasleek Europako Unibertsitate Eremuaren esparruko irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetako hobekuntza etengabearekiko duten konpromisoa.

Jardunaldia **Jon Barrutia** Fakultateko dekanoa eta **Javier Corral** Kalitate, Ikasketa Berrikuntza eta Ekintzailetzako dekanordeak inauguratu zuten, eta nabarmendu zuten irakaskuntza berrikuntzak unibertsitateko hezkuntzaren egungo erronkei erantzuteko oinarritzko zutabe gisa duen garrantzia.

Egunean zehar, zenbait hizlarik gure fakultatearen esparruan garatutako proiektu eta esperientzia berritzaileak aurkeztu zituzten:

- **Asier Arcosek** (Ekonomia Aplikatua Saila) "Trabajando los Objetivos de Desarrollo Sostenible gracias al Aprendizaje-Servicio en la Facultad de Economía y Empresa" (Garapen Jasangarrirako Helburuak lantzea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Ikaskuntza Zerbitzuari esker) aurkeztu zuen, non metodologia horrek unibertsitateko prestakuntzan duen garrantzia azpimarratu zuen.

- **M<sup>a</sup> Beatriz Plazak** (Politika Publikoak eta Historia Saila) alfabetatze teknologikoaren eta inklusioaren gaia jorratu zuen "Education for Technological Literacy and Inclusion" izeneko hitzaldian.

- **Julen Izagirrek** (Finantza Ekonomia II Saila) "Aprendizaje cooperativo y basado en investigación en el marco de la Economía Social" (Ekonomia Sozialaren esparruan ikerketan oinarritutako ikaskuntza kooperatiboa) izeneko hitzaldia aurkeztu zuen, arlo horretako bere esperientzia partekatzeko. **Eduardo Malagónek** (Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saila) "Ekonomi3: creando valor social mediante la resolución de retos" (Ekonomi3: balio soziala sortzea erronken ebazpenaren bidez) izeneko hitzaldia aurkeztu zuen, irakaskuntza eragin sozialarekin lotzeko proposamen bat.

- **Amaia Lafuentek** (Finantza Ekonomia II Saila) unibertsitateko irakaskuntzan adimen artifiziala txertatzeari buruzko hausnarketa egin zuen "Consideración de la Inteligencia Artificial en los procesos de enseñanza y aprendizaje de las titulaciones de la Sección de Álava" (Arabako Ataleko titulazioetako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan adimen artifiziala aintzat hartzea) izeneko hitzaldian.

Horrez gain, ikasleek "Sarriko, zero hondakin" proiektua aurkeztu zuten, jasangarritasunarekin eta unibertsitate ingurunean eragin positiboa izatearekin konprometitutako ekimena.

Eta, amaitzeko, **Elena Catalánek** (Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saila) "ERRONKA BERRIA" aurkeztu zuen, ideia eraldatzaileez beteriko jardunaldiari amaiera borobila emateko.

Jardunaldiek agerian jarri zuten irakasleek konpromiso irmoa dutela irakaskuntzaren kalitatearekin; eta, horrez gain, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak Europako Unibertsitate Eremuaren eskarierara egokitzerakoan erakusten duen lidergoa ere indartu zuten, irakaskuntza inklusiboa, eraldatzailea eta gizarteari zuzendutakoa sustatuta.

*Javier Corral-Lage*



## Marx gazteari buruzko mintegia amaitu da

Beste urte batez, [Sarrikoko El Capital Mintegia](#) eta **Ekonomia Aplikatua Sailak Karl Marxen** obrari buruzko prestakuntza mintegi bat antolatu dute. Ikasturte hone-tan egilearen gaztaroko Ekonomia Politikoko idatziak aztertu dituzte: Manuscritos económico-filosóficos, Manuscritos de París eta Miseria de la Filosofía, bai eta gaiari buruzko beste laguntza testu batzuk ere.

Asteroko saioetan bertaratze handia egon da, bai aurrez aurre bai online eta Espainia osoko zein Hispanoamerikako zenbait herrialde-tako parte hartzaileak izan dira.

Mintegia irailean abiarazi eta ekainean amaitu zen, **Guido Starostaren** hitzaldi magistralarekin. **Starosta** Quilmesko Unibertsitate Nazionalako irakaslea eta Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionalako (CONICET, Argentina) kidea da. "El joven Marx y el método dialéctico" (Marx gaztea eta metodo dialektikoa) izeneko hitzaldia aurkeztu zuen.

2024-25 ikasturterako aurreikusita dago El Capitalen I. liburukia irakurtzea. Aukera paregabea izango da garai guztietako ekonomia politikoaren testurik garrantzitsuenetako bati heltzeko; zalantzarik gabe, ezinbestekoa da errealitatearen ikuspegi marxista ulertzeko.

Joaquín Arriola

## Petr Marielek Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen izena eramán du hego-ekialdeko Asiara



Sven Anders (University of Alberta), Petr Mariel (UPV/EHU), Jürgen Meyerhoff (HWR Berlin) eta Pham Khanh Nam (UEH)

Bertaratuen artean Vietnam, Filipinak, Indonesia, Malaysia eta Thailandiako ikertzaile eta doktoregaiak zeuden, zeinentzat onuragarria izan zen Petr Marielek arlo horretan duen ezagutza eta esperientzia zabala.

Metodo Kuantitatiboak Saileko **Petr Marielek** gure erakundearen izena eramán du Vietnamera, han parte hartu baitu irakasle gisa hego-ekialdeko Asiako doktoregaiak zuzendutako udako ikastaro ospetsu batean. Zehazki, 2024ko ekainaren 10etik 14ra bitartean, "[Environmental Valuation using Discrete Choice Experiment: Strategies for Sustainable Development in Southeast Asia](#)" izeneko ikastaroan irakasle aritu zen **Sven Andersekin** (University of Alberta) eta **Jürgen Meyerhoffekin** (HWR Berlin) batera. Ikastaroa University of Economics Ho Chi Minh City (UEH) unibertsitatean izan zen, eta Economy and Environment Partnership for Southeast Asia ([EEPSEA](#)) eta Environment for Development ([EFD](#)) erakundeek antolatu zuten.

Ikastaroaren helburua zen parte hartzaileek sakon ulertzea aukera diskretuko

esperimentuen metodologia, ingurumen ekonomia ezinbesteko tresna. **Bertaratuen artean Vietnam, Filipinak, Indonesia, Malaysia eta Thailandiako ikertzaile eta doktoregaiak zeuden, zeinentzat onuragarria izan zen Petr Marielek arlo horretan duen ezagutza eta esperientzia zabala.**

Ikastaroaren arrakasta parte hartzaileek [padlet](#)-en argitaratutako iruzkin onetan islatuta geratu da. Baina hori ez zen izan Petr Marielek metodologia horri buruz eskainitako lehen ikastaroa. Bere ibilbidean antzeko ikastaroak egin izan ditu mundu osoan zehar. 2017an eskolak eman zituen udako ikastaro batean **Michigan State University-n** (AEB), eta, urte berean, baita **Technical University of Berlin-en** ere, Institute for Ecological Research-ekin (Alemania) lankidetzan. 2019an **Shanghaiiko SHU-UTS SILC Business School-en** (Txina) partekatu zituen bere ezagutzak, eta duela gutxiago, 2022an, beste udako ikastaro bat eman zuen **University of Cape Town-en** (Hegoafrika).

Udako ikastaro horietan guztietan parte hartu izanak agerian jartzen du konpromiso irmoa duela irakaskuntza eta ikerketarekiko; eta, horrez gain, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea nazioarteko panoraman jartzen laguntzen du. Izan ere, horrelako ekimenek gure presentzia globala indartzen dute, eta mundu mailan ezagutza eta esperientzien trukea sustatzen dute.

Petr Mariel



# Unibertsitatea, Gizartea eta Enpresa: ¿Es competitivo el mercado eléctrico en España? (Lehiakorra al da Espainiako elektrizitate merkatua?)



Fakultatean transferentzia jardunaldi bat egin da, zeinetan Espainiako elektrizitate merkatuaren lehiakortasuna aztertu den eta energiaren prezioak euskal industriarentzat funtsezko faktorea direla nabarmendu den.

2024ko azaroaren 8an, “¿Es competitivo el mercado eléctrico en España?” (Lehiakorra al da Espainiako elektrizitate merkatua?)” jardunaldia egin zen, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ekitaldi aretoan. **Análisi Económico Sailak** antolatu zuen, **Energía y Sociedad** erakundearekin batera. Irekiera instituzionala Fakultateko dekanok **Jon Barrutiak** eta Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusi **Mikel Amundarainek** egin zuten. Barrutiak jardunaldi hori Fakultatean egiten diren transferentzia jardueren zati garrantzitsua zela nabarmendu zuen eta Amundarainek, berriz, energiaren prezioak euskal industriarentzat duen garrantzia nabarmendu zuen. Ekitaldian bi txosten tekniko aurkeztu ziren: bata, PwC aholkularitza enpresarena, Espainiako txikizkako elektrizitate

merkatuaren lehiari buruzkoa, eta bestea, Análisi Ekonomikoa Sailarena, Espainiako handizkako merkatu elektrikoaren kontzentrazioa aztertzei buruzkoa. Gainera, PwC-ko Energia arloko arduradun **Helena Lapeyrea** bazkideak moderatutako mahai inguru bat ere egin zen. Honako hauek osatu zuten mahai ingurua: OMIEko Public Affairs eta Marketineko zuzendari **Rafael Gómez-Elvirak**, NERA Economic Consultingeko zuzendari **Jorge Sanzek**, Orkestra - Lehiakortasunerako Euskal Institutuko energia arloko koordinatzaile **Jorge Fernándezek**, eta Análisi Ekonomikoa Saileko irakasle titular **Cristina Pizarro-Irizarrek**.

PwC-ko Aholkularitza Alorrerako Energia eta Utilities sektoreko zuzendari **Esther Martínez Arroyok** aurkeztutako “¿Es competitivo el mercado minorista de electricidad en España?” (“Lehiakorra al da txikizkako elektrizitate merkatua Espainian?”) izeneko txostenaren arabera, Espainiak aldaketa oso handia izan du liberalizazioaren prozesuan. PwC-ren arabera, Espainian energia elektrikoaren merkaturatzeak Europar Batasuneko herrialde gehienetan baino irekiera eta kontzentrazio maila askoz ere aurreratuagoa du, bai eta Europako enpresa merkaturatzaileen aldaketa tasarik handienetakoa ere.

Handizkako merkatuari dagokionez, Análisi Ekonomikoa Saileko kate-

dradun **Aitor Ciarreta Antuñanok** aurkeztutako “Un Análisis de la Concentración en el Mercado Ibérico de Electricidad” (“Espainiako Elektrizitate Merkatuaren Kontzentrazioaren Azterketa”) izeneko azterlanak baieztatu egiten du kontzentrazioak behera egin duela 2015az geroztik, eskaintzarako zein eskarirako, eta 2022az geroztik geldialdia izan duela.

Mahai inguruan, elektrizitate merkatuaren diseinuari buruzko zenbait gaurkototasun gairi buruz eztabaidatu zuten eta parte hartzaileen artean eztabaida bizia sortu zen. Bertaratutakoek ere parte hartu zuten.

Jardunaldian, ikasle, irakasle eta euskal enpresa eta erakundeetako ordezkari ugari hartu zuten parte, eta topagune bat sortu zuten elektrizitate sektoreko gaiak sakondu eta erronkak eta aurrerak identifikatzeko.

**Txostenetarako sarbidea:** <https://www.energiaysociedad.es/jornada-energia-y-sociedad-8-noviembre-es-competitivo-el-mercado-electrico-en-espana/>

*Aitor Ciarreta, María Paz Espinosa y Cristina Pizarro-Irizar*

# Etxebizitzari, merkataritza lokalei eta etxebizitza turistikoei buruzko VI. jardunaldiak



Joan den 2024ko abenduaren 3an, **Etxebizitzari, merkataritza lokalei eta etxebizitza turistikoei buruzko seigarren jardunaldiak** egin ziren Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean. Arloko erreferente bihurtu den ekitaldi horretan, lokalen eta etxebizitzaren errentamenduari buruzko azken berriak ezagutu nahi zituzten ikasle eta profesionalak bildu zituen.

Aurreko edizioetan bezala, ikasleek eta gainerako bertaratuak zuzenean ezagutu ahal izan zituzten negozio lokalen eta etxebizitzaren errentamenduari buruzko azken arauak, Bizkaiko Hiri Ganberako abokatuen eskutik. Gainera, berrikuntza gisa, **Apartureko** ordezkariak elkarte horrek etxebizitza turistikoei buruz duen ereduaren berri eman zuen.

Hitzaldiaren puntu gakoak:

- Merkataritza lokalen errentamenduak:  
Bizkaiko Hiri Ganberako abokatu **Josu Zulueta San Nicolásek** azaldu zuen merkataritza lokalen errentamenduak funtsezko alderdiak hartzen dituela barne, hala nola kontratuaren iraupena, fidantza eta bermeak. Hiri Errentamenduen Legeak (HEL) bi hilabeteko fidantza

eskatzen du eta berme gehigarriak eskatzeko aukera ematen du. Funtsezkoa da atzera egiteko klausulak sartzea, aldez aurretik ebatzi eta gatazkak saihesteko.

- Etxebizitzaren errentamenduak:  
Bizkaiko Hiri Ganberako abokatu **José Miguel Alonso Sanzek** eta **Miguel Alonso Beitia** etxebizitzaren errentamenduari buruzko puntu gakoak aztertu zituzten.

- Etxebizitza turistikoak:  
Apartureko presidente **Asier Pere-da Benitok Apartureren** Euskadiko eredu aurkeztu zuen, zeinak etxebizitza turistikoak profesionalizatzen eta sostengatzen dituen, eta sare ekonomiko eta sozialean txertatzen dituen. Enplegua sortzen du, erantzukizun fiskala eta soziala ziurtatzen du eta hirigintzaren arloko oreka sustatzen du. Horretaz gain, garapen jasangarriko eragile ekonomikoen arteko lankidetzak sustatzen du.

Jardunaldia aukera paregabea izan zen gai garrantzitsuetan egunean egon eta sektoreko soluzio berritzailei buruz eztabaidatzeko.

*Iker Zeballos*

## EAEPE urteko kongresua

2024ko irailaren 4tik 6ra European Association for Evolutionary Political Economy (EAEPE) elkartearen 36. urteko kongresua egin zen Sarrikoko Fakultatean. EAEPE, kideei dagokienez, Europako ekonomisten bigarren elkar-tea da. Irailaren 3an, ikertzaile gazte-entzako Pre-conference bat egin zen eta kongresuan 350 ekonomista baino gehiago elkartu ziren. Horietako 320k zuzen-zuzenean hartu zuten parte.

Aldi berean egin ziren saio ugarietz gain, zenbait osoko bilkura egin ziren, zeinetan Mexikoko Unibertsitate Autonomoko **Alicia Girón** eta Pisako Scuola Superiore Sant'Anna-ko **Maria Enrica Virgillito** irakasleek hizlari gonbidatu gisa hartu zuten parte.

Kongresuari amaiera emateko, Girón irakasleak gidatu zuen mahai inguru bat egin zen, eta **Maria Enrica Virgillito** eta Sarrikoko Fakultateko **Beatriz Plaza** irakasleek parte hartu zuten, Bilbao Metropoli 30eko zuzendari nagusi **Idoia Postigorekin** batera. Mahai inguruan, hiri garapen sozial eta ekonomikoari buruzko politiken eta Bilbo eta bere ingurunea eraldatzeko estrategiaren gainean eztabaidatu zen.

*Jesús Ferreiro*



## “Decathlon: kirolaren bidez zirrara eragiten” hitzaldia

Joan den 2024ko urriaren 30ean, Finantza Ekonomia II Sailak **Enpresaren Ekonomia: sarrera** irakasgaiaren esparruan antolatutako hitzaldi garrantzitsu bat egin zen Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Areto Nagusian. Ekitaldi hori graduako lehen mailako ikasleentzat egin zen, eta Decathlon enpresako hiru hizlari hartu zuten parte: Euskal Herriko arloaren buru **Javier Vasallo**k, Barakaldoko dendako zuzendari **Tomás Herrero**k eta denda bereko atalburu **Laura Restrepok**.

Hitzaldiaren helburu nagusia izan zen kirol artikuluen sektoreko enpresa liderretako bat den **Decathlon** enpresaren jardunari buruzko ikuspegi zehatza eta praktikoa ematea. Hizlariak enpresako zenbait **eremu funtzional** jorratu zituzten eta ikasleei etorkizuneko proiektuetan aplikatu ahal izango duten informazio baliotsua eman zieten.

Ikasleek atsegin handiz jaso zuten hitzaldia, eta oso modu positiboan baloratu zuten ospe handiko enpresa baten jardunbideak zuzenean ezagutzeko **aukera**. Hitzaldiaren ostean egin zen galderen txandan, giza baliabideei eta marketinari buruzko zalantzak argitu eta alderdi espezifikotik sakondu ahal izan ziren.

Halako ekimenek enpresa mundua unibertsitatera hurbilarazteko aukera ematen dute, eta funtsezkoak dira etorkizuneko profesionalen prestakuntza aberrasteko; izan ere, enpresa munduarekin lotzen dituzte eta lan merkatuko erronkei aurre egiteko prestatzen dituzte.

*Josu Santos*

## XIII. Ituna jardunaldiak euskal sistema politikoan Ekonomia Itunaren zeharkako adostasuna aztertu zuen



Joan den azaroaren 14an, “Ekonomia Itunaren zeharkako adostasuna: berezitasun bat euskal sistema politikoan” izeneko XIII. Ituna Jardunaldia egin zen Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Bizkaia Aretoan. Ekonomia Itunaren Ikerketarako Agiritegiak (Ituna Zentroa) eta Ekonomia Ituna Sustatu eta Hedatzeko Elkarteak (Ad Concordiam) antolatu zuten ekitaldia, eta helburua izan zen Euskal Autonomia Erkidegoan Ekonomia Itunaren inguruan dagoen adostasun politiko zabalari buruz hausnartzea.

Ad Concordiam-eko presidente **José Rubík** eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko idazkari tekniko nagusiak inauguratu zuten ekitaldia, UPV/EHUko katedradun emeritu eta Ituna Zentroko zuzendari ohi Joseba Agirreazkuenagarekin batera.

Lehenengo hitzaldian, Historia Garaikideko irakasle eta Ituna Zentroko egungo zuzendari **Eduardo Alonsok** Ekonomia Itunaren garapen historikoa jorratu zuen, sortu zenetik 1937ra arte. Haren konfigurazioa politikoa edo teknikoa izan zen aztertu zuen, eta ondorioztatu zuen bi dimentsioak erabakigarriak izan zirela diseinuan eta legitimazioan.

Bestalde, Ituna Zentroko zuzendari ohi **Mikel Erkorekak** Itunaren inguruko adostasuna azaltzen duten elementu gakoak izan zituen hitzaldiaren ardatz. Funtsezko hiru faktore identifikatu zituen: historikoa eta legezkota, arau esparruan aitortzea; arrazionala, ezarpenetik eratorritako emaitza ekonomiko eta sozialei lotua; eta identitarioa, euskal gizartearen duen kultura balioa azpimarratzen duena.

Autogobernuaren ikuspegia Institut

d’Estudis de l’Autogovern erakundeko ikertzaile **Mireia Grauk** aztertu zuen. Katalunian autogobernuaz dagoen pertzepzioaren berri eman zuen (ideia hori finantzaketarekin lotu zuen), bai eta 2012ko itun fiskalaren proposamenen eta 2024rako proiektatutako finantzaketa berezi bateranzko bidean egindako aurrerapenen berri ere.

Atsedenaldira baten ondoren, Ituna Zentroko ikertzaile **Jon Garrok** **Mikel Erkorekarekin** eta **Asier Biasekin** lankidetzan egindako “Ituna 2024 inkesta” argitalpena aurkeztu zuen. Azterlan horrek euskal elite politikoei Ekonomia Itunari buruz duten iritzia aztertzen du, eta azterketa teorikoa eta datu enpirikoak konbinatzen ditu. Txostena eztabaidarako oinarri izan zen **Joseba Agirreazkuenagak** moderatu zuen Euskadiko alderdi politiko nagusietako ordezkariarekin egindako mahai inguruan. Bertan, **Aitor Arregik** (EAJ-PNV), **Arantza Sarasolak** (EH Bildu), **Josu Lópezek** (PSE-EE) eta **Antonio Damboreneak** (PP) hartu zuten parte eta Itunak autogobernuan dituen ondorioei buruzko ikuspegiak partekatu zituzten.

Ekitaldia amaitzeko, Bizkaiko Ogasuneko diputatu **Itxaso Berrojalbizek** Foru Aldundiak erakunde horri buruzko ezagutza zabaltzeko duen konpromisoa azpimarratu zuen. Jardunaldiak zerga arloko adituak, akademikoak, komunikabideak eta, oro har, publikoa bildu zituen, eta Ekonomikoa Itunak Euskal Autonomia Erkidegoan duen eragin politiko, tekniko eta soziala aztertzeke gune gisa finkatu zen.

*Sergio Del Rey Ruiz*

# Auditorearen lanbidea Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikasleengana hurbilarazten



Gaur egun belaunaldien arteko erreleboa behar duen lanbidea da eta lan aukera handiak eskaintzen ditu.

Ekonomisten Euskal Elkargoko REAko (Ekonomista Auditoreen Erregistroa) zuzendaritza batzordeko kiden diren auditore **Zuriñe Iñurrieta Rodríguezek, Coro de Erauso Velascok eta Manu Gardezabalek** maiz oso ezezaguna den baina lan aukera handiak eskaintzen dituen lanbidea aurkeztu diete UPV/EHUKo Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eta Elkanoko ikasleei.

Gaur egun belaunaldien arteko erreleboa behar duen lanbidea da eta epe ertainera lan aukera handiak eskaintzen ditu bai auditoretzaren esparruan bertan, bai beste sail batzuetarako tranpolin gisa, hala nola finantzen sailerako.

UPV/EHUK **Kontuen Ikuskaritza eta Goi Mailako Kontabilitatea Masterra** eskaintzen du, eta master horrek kontuen auditorearen lanbidea arautuan sartzeko aukera ematen du. Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak (ICAC) eskatutako prestakuntza teorikoa ematen du, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean (RAEO) inskribatzeko aukera ematen duen azterketaren fase teorikoa (I. blokea: Kontabilitatea

eta Auditoretza) salbuesteko, zeina beharrezkoa baita auditoretza lanbidean aritzeko, indarrean dagoen legearen arabera.

Horrez gain kontabilitate, finantza informazio eta kontu auditoretza arloetan espezializatu eta eskumenak eguneratu nahi dituzten gradudun eta lizentziadunen prestakuntza beharrak asetzen ditu.

Ekimenean fakultateko irakasle **Itziar Garrotek, Itsaso Barrainkuak eta Noemí Peñak** aktiboki hartu dute parte.

*Iñaki Ramos*



# Ikasleen eta profesional eta enpresen arteko gosariak



Ekonomisten Euskal Elkargoak eta UPV/EHUko Bilboko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak lan gosari formatuko bi topaketa antolatu zituzten, azaroan eta abenduan, graduako azken mailako ikasleentzat. Bi topaketa horien helburua zen ikasleak lan eremura hurbilaraztea.

Lehenengo topaketan, ikasleek ekonomisten lan arloak eta haien lanbide esperientzia ezagutzeko aukera izan zuten. Honako hauek hartu zuten parte:

**Manu Gardeazabal** (auditoretza eta aholkularitza), **Susana Aguirre** (marketinga), **Ignacio Arrondo López** (controller, kontabilitatea eta finantzak).

Bigarren tokapetan, ikasleak zenbait lanpostu eta horietako bakoitzean eskatzen diren gaitasunak aurkeztu zituzten hiru enpresekin bildu ziren. **PKF Attest**, **Iberdrola** eta **Laboral Kutxa** enpresek hartu zuten parte gosari horretan.

Oso metodologia dinamikoa duten topaketak dira, eta ikasleei aukera ematen diete enpresa eta lanpostu interesgarriak modu hurbil eta zuzenean identifikatzeko, gehien eskatzen diren gaitasunak eta profilak ezagutzeko eta ibilbide profesionalari hasiera ematen lagunduko dien orientazioa jasotzeko.

*Iluminada Aparicio*

## 2024 Gazte ekonomistak foroak lehenengo edizioaren arrakasta gainditu du



Azaroaren 9an, larunbatean, Bilboko La Perreran egin zen GAZTE EKONOMISTAK FOROAREN bigarren edizioan 100 ikasle inguruk hartu zuten parte, foroaren programaren parte den lehiaketaren lehen saria (500 €) irabazteko gogoz.

Urteko ekitaldi hori Ekonomisten Euskal Elkargoko Ikasleen Komunitateak antolatzen du. Xedea da ikasleak kudeaketaren eta, oro har, ekonomiaren arloko gaurkotasuneko eta garrantzi bereziko gaietara hurbiltzea.

2024ko edizioari 20 minutuko inpaktu hitzaldien bloke batek eman zaion ha-



siera. Honako hauek izan ziren hitzaldi horien gaiak: motibazioaren eta ahaleginaren kudeaketa, LinkedIn-eko profil profesionala optimizatzea, enpresek ekonomistei gehien eskatzen dizkieten gaitasunak, jasangarritasunaren mitoak eta erronkak, jendaurrean hitz egiteko tip-ak eta talentuaren kudeaketa.

Foroaren bigarren zatia ekintzaileekin egindako mahai inguru batek osatu zuen, zeinetan ikasleek ekintzailetza zenbait ikuspegitik ezagutu ahal izan zuten, hala nola: ekintzailetza konpromisoduna, ekintzailetza berritzailea, ekintzaile-

tza tradizionala eta marka irudia duen ekintzailetza.

Amaitzeko, hainbeste espero zen lehiaketa egin zen, gaur egun gazteei eragiten dieten arazoetako batzuk konpontzeko erronkan oinarritutako ideiak aurkeztu eta baloratu ondoren. Lehiaketak 500 euroko saria jasotzeko aukera ematen zien parte hartzaileei. Fakultateko dekanok Jon Barrutiak eta Euskara, Ikasleen eta Enplegarritasuneko dekanorde Unai Tamayok hartu zuten parte epaimahaian.

Jardunaldiak gero eta interes handiagoa pizten du ikasleen artean, eta espero dugu 2025ean errepikatzea. GAZTE ekonomistak FOROAK Rural Kutxaren babesa eta UPV/EHUren lankidetzatza du.

*Aintzane Goikoetxea*

# Mercedes Benz fabrikara bisitaldia



Oso aberasgarria izan zen robotak ekoizpen lerroetarako materialak garraitzen zituztela gure ondotik modu autonomoan nola igarotzen ziren ikustea eta prozesu osoan automatizazioak duen garrantzia egiaztatzea.

Joan den apirilaren 23an, 50 ikaslek baino gehiagok bisitatu zuten Vitoria-Gasteizko **Mercedes Benz** fabrika, **Amaia Bañales** eta **Covadonga Aldamiz-Echevarría Nazioarteko Marketina** irakasgaiko eta **Susana Tejada** buru den **Industria Marketina** irakasgaiko irakasleekin batera. Bi taldetan banatuta (bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa), fabrikako zenbait atal ezagutu ahal izan zituzten. Bisitaldian zehar, milaka robotek eta langilek elkarrekin nola egiten duten lan ikusi ahal izan zuten. Robot eta langile horiek bezero bakoitzaren zehaztapenetara egokitutako ibilgailu pertsonalizatuak ekoizten laguntzen dute.

Oso aberasgarria izan zen robotak ekoizpen lerroetarako materialak garraitzen zituztela gure ondotik modu autonomoan nola igarotzen ziren ikustea eta prozesu osoan automatizazioak duen garrantzia egiaztatzea. Roboten zereginaren zen, besteak beste, ibilgailuen zatiak mugitzea, leuntzea eta moztea; pertsona, berriz, zati horietan osagai elektronikoak txertatzea.

Bisitaldiak aukera eman zigun gure inguruko enpresen kalitate eta berrikuntza mailaz jabetzeko, bai eta ikasgelan ikasitako kontzeptu asko nola aplikatzen den ikusteko ere. Oso adibide bitxia

izan zen Italiako merkatuan Mercedes Benz markako Vito furgoneta Vito Corleoneren mafiarekin lotzea. Era berean, ikasleek ikusi ahal izan zuten mundu mailan ibilgailuak bezero bakoitzaren ezaugarrien arabera egokitu eta pertsonalizatzen zirela, eta ibilgailu horien helmugako herrialdeen berezitasunek ere garrantzi handia dutela.

Ikasleak pozik itzuli ziren fakultatera esperientzia eta "txango" horretatik, nahiz eta irakasleak tematu egiten ziren irteerari "enpresara bisitaldia" deitzen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu **Bizkaiko Campusari** eta **Finantza Ekonomia II Sailari** jarduera hori finantzatzeagatik, eta espero dugu urtero enpresetara bisitaldiak egiteko aukera izatea.

*Covadonga Aldamiz-Echevarría,  
Amaia Bañales eta Susana Tejada*



# Elena Catalán, Felipe Ruiz Martín

## 2024 saria



Epaimahaiak ikerlan horren dokumentu oinarri sendoa nabarmendu du, bai eta epe luzean generoagatiko diskriminazioa eta horren eragileak ezagutzeko egin duen ekarpena ere.

Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa saileko **Elena Catalán**ek **Felipe Ruiz Martín** 2024 saria jaso du, Historia Ekonomikoaren Espainiako Elkarteak Espainiako arloko aldizkarietan argitaratutako historia ekonomikoari buruzko artikulurik onenari ematen dion saria. Honako hauek dira aldizkariok: Investigaciones de Historia Económica - Economic History Research, Revista de Historia Económica - Journal of Iberian and Latin American Economic History, Revista de Historia Industrial - Industrial History Review, Historia Agraria, Revista de Agricultura e Historia Rural eta Iberian Journal of the History of Economic Thought.

Investigaciones de Historia Económica - Economic History Research aldizkarian argitaratu zen lan sarituaren titulua "Were there missing girls in Biscay? Sex ratios in Northern Spain, 1550-1899" da, eta esteka honetan dago eskuragarri: <https://doi.org/10.33231/j.ihe.2023.03.004>

Epaimahaiak ikerlan horren dokumentu oinarri sendoa nabarmendu du, bai eta epe luzean generoagatiko diskriminazioa eta horren eragileak ezagutzeko egin duen ekarpena ere. Azterketarako Bizkaia hautatu du eta artikulua agerian uzten du, hiri eremuarekin alderatuta, landa eremuan lehenetsi egiten zutela semeak izatea. Hori lotuta zegoen familia motarekin eta jaraunspen araubidearekin. Lehentasun hori XVIII. mendean hasi zen indargabetzen. XIX. mendearen bigarren erdialdean, industrializazioan zehar, berriro nagusitu zen semeak izateko nahia. Horrek guztiak erakusten du oso garrantzitsua dela ingurune geografikoak eta sozioekonomikoak aldien arabera bereiztea, eta instituzio esparrua kontuan hartzea emaitzak aurkeztu eta interpretatzeko.

Iñaki Etxaniz

# Gaudeamus Igitur



Martxoaren 14an, 1974ko promozioa etorri zen Sarrikora. Promozio horrek orduko Hezkuntza eta Zientziako ministroaren (**Julio Rodríguez**) ustez urte naturalarekin bat egin behar zuen egutegiaren arabera hasi zuen lehenengo ikasturtea. Erreformak ez zuen aurrera egin eta laster heldu zioten berriro ohiko eskola egutegiari. Erreformak eta "kontraerreformak" eragindako bat ez etortzeen ondorioz, denboran zehar

ikasketak modu desberdinean amaitu ziren. Hori dela eta, haien erreferentziazko urtea ikasketen hasierako urtea da, ez ikasketen amaierakoa.

Bisitaldian opari bat ekarri ziguten: "**Gaudeamus Igitur**" izeneko film laburra, 70eko hamarkadako Unibertsitatearen eta Fakultatearen dokumentu bizia, benetako altxorra. Oso eskertuta gaude.

Oso atsegina izan zen haiek hartzea.



## 24. promozioa

Urriaren 26an, Ekonomia eta Enpresa Zientzien (Orokorra) 24. promozioa bisitatu genuen. Bisitan Fakultatean zehar ibili ziren, eta horri esker ikusi ahal izan zituzten, batzuentzat lehen aldiz, 1995eko zabalkuntzan sortutako aldaketak. Une atseginak izan ziren, eta berrelkartzea eta itzulera ahalbidetu zuten, beti bere etxea izan dena, horrela oroitzapen asko partekatuz. Plazera izan da zuek hartzea.



# Ekonomia eta Enpresa Fakultateak arrakastaz ospatu zuen 2024ko Euskal Herriko XIV. Ekonomiako Olinpiada



Ekonomiako Olinpiadak bikaintasun akademikoa eta Ekonomia eta Enpresen Administrazioa ikasketak gazteen artean sustatzeko daukagun konpromisoaren adibidea dira.

Joan den ekainaren 17an, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, 2024ko Ekonomiako Olinpiaden tokiko fasea egin zen. Ekitaldian Euskadiko Batxilergoko ikasleak bildu ziren, Ekonomia eta Enpresen Administrazioa ikasketekiko interesa pizteko.

Ekonomiako Olinpiadek gazteen ahalegina eta ezagutza saritzeaz gain, Fakultatearen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta diziplina horretan interesa duten etorkizuneko unibertsitate ikasleen arteko lotura sendotzen du.

Edizio honetan, 2024ko ikasturtean "Ekonomia" (Batxilergoko 1. maila) eta "Ekonomia eta Enpresen Antolakuntza" (Batxilergoko 2. maila) irakasgaiak egin ari diren ikasleek hartu zuten parte, eta irakasgai horien curriculum ofiziale-

ko edukei buruz duten ezagutza probatu zuten.

Fakultateak **Jon Barrutia** dekanoa eta Euskara, Ikasleen eta Enplegarritasuneko dekanorde **Unai Tamayo** buru zituen Batzorde Akademikoa izendatu zuen. Honako hauek izan ziren batzordeko kide: **Arantza Ugidos Olazabal, Izaskun Ipiñazar Petralanda, Amaia García Azpuru, Ana Maria Ferrero García Rodríguez eta Aritza López de Guereño Zarraga**. Batzordeak probak ebaluatu, ariketak kalifikatu eta Nazioko Fasean gure Fakultatea ordezkatu duten finalistak hautatu zituen. Proben emaitzak Fakultateko webgunean daude eskuragarri.

Ekonomia eta Enpresa Fakultateak eskertu egin nahi du ikasleen parte hartzea eta irakasleen laguntza, horiei esker lortzen baita halako ekimenek arrakasta izatea. Ekonomiako Olinpiadak bikaintasun akademikoa eta Ekonomia eta Enpresen Administrazioa ikasketak gazteen artean sustatzeko daukagun konpromisoaren adibidea dira.

*Unai Tamayo*

## Nik sinesten zaitut



Azaroaren 27an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren harira antolatutako "Errelatoaren garrantzia: Nik sinesten zaitut" izeneko hitzaldia eman zen Sarrikon. Ekitaldi horretan **Virginia Acebes** ikaslea gogoratu zen, haren hilketaren 25. urteurrenean, eta haren ahotsa eta memoria aldarrikatu ziren, Fakultatean haren izena daraman gelak etengabe egiten duen moduan.

# IRlek eta TEKAZELek Ekonomia eta Enpresa Fakultatean duten konpromisoa eta dedikazioa aintzatestea

Ekitaldi horren bidez, Fakultateak berretsi egiten du irakaskuntzaren eta kudeaketaren aintzatespenaren alde duen konpromisoa, eta azpimarratu egiten du irakasleen, teknikarien, eta kudeaketa, administrazio eta zerbitzuen arloko langileen ahalegina eta irrika jarduketa arlo guztietan bikaintasuna bultzatzen duen motorra direla.



Joan den abenduaren 19an, Ekonomia eta Enpresa Fakultateak aintzatespen ekitaldi hunkigarria egin zuen komunitate akademikoan funtsezkoak diren bi zutabe omentzeko: lan bizitza osoa erakundeari eskaini dioten irakasle erretiratuak eta 25 urteko ibilbidearen ostean etorkizuneko belaunaldien prestakuntzan alde markatzen jarraitzen duten irakasle eta TEKAZELak.

Fakultatearen Areto Nagusian egin zen ekitaldia, eta zenbait hamarkada irakaskuntzan, ikerketan eta unibertsitate zerbitzuan eman dituzten langileen ekarpen ezin ebaluagarria nabarmendu zen.

Parte hartzaileek Fakultateko irakasleek ikasleengan, kideengan eta gizartean izan duten eragin positiboa azpimarratu zuten; izan ere, gure Fakultatearen ezaugarri diren bikaintasunaren eta konpromisoaren balioak sendotu dituzte.

Joan Barrutia dekanok irakasle erretiratuen legatua eskertu zuen eta gaur egun ezaugarri dugun oinarri akademiko sendoa eraikitzen izan duten zeregina aitortu zuen. Era berean, hitz goxoak eskaini zizkien erakundean 25 urte eman dituzten irakasleei eta TEKAZELe, eta adierazi zuen haien dedikazioak eta ahaleginak denontzako inspirazio iturri izaten jarrait-

zen dutela.

Ekitaldia amaitzeko, aintzatespenak banatu eta omenaldien aldeko brindisa egin zen, eta komunitate akademikoak esker ona eta maitasuna adierazi zien Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen garapenean modu esanguratsuan lagundu duten guztiei.

Ekitaldi horren bidez, Fakultateak berretsi egiten du irakaskuntza eta kudeaketa aintzatespenaren alde duen konpromisoa, eta azpimarratu egiten du irakasleen, teknikarien, eta kudeaketa, administrazio eta zerbitzuen arloko langileen ahalegina eta irrika jarduketa arlo guztietan bikaintasuna bultzatzen duen motorra direla.

Honako hauek omendu ziren ekitaldian: **José Manuel Rodríguez Molinuevo, Ignacio Díaz-Emparanza, Esther Gutiérrez, Belén Castro, Mertxe Ruiz, Juanan Barrenetxea, Amagoia Saggasta eta Merche Malillos.**



# Euskara lan eremuan

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak euskararen erabilera eta zenbait hezkuntza eta ikerketa eremutan tresna berritzaileen garapena sustatzen jarraitzen du.



Abenduaren 3an, Euskararen Eguna-ren harira, profesionalek eta irakasleek lanbide eremuetan euskararen erabilerrari buruzko topaketa egin zuten Sarrikon. Topaketa honako hauekin lan-kidetzan egin zen: Ekonomisten Euskal Elkargoa (Ekonomistentzako lan tresnak), EMUN (Euskara planak lehiakortasunerako palanka izateko esperimentazioa) eta SPRI (Industriarako euskarazko baliabideak).

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateak euskararen erabilera eta zenbait hezkuntza eta ikerketa eremutan tresna berritzaileen garapena sustatzen jarraitzen du.



# Non dago nire berokia?



Deigarriena ez da objektu horiek galtzea, baizik eta galdutakoa betiko abandonatzea, ez baitute galdetu ere egiten ea gordeta dauden, jabe lasaiaren zain.

**Conchi Santisteban** eta  
**Josune Puente** atezain nagusiak

Sarrikoko atezainak eskuetara iristen zaizkien "objektu galdu" mordoan lekuko pribilegiatuak dira, ikasleek ikasgela, korridore, ikasteko gela eta abarretan ahaztuta uzten dituztenenak.

Jantzi "baliagarriak" (berokiak, jakak, gabardinak...), gailuak (tabletak, ordenagailuak eta telefono mugikorrak) eta abar. Ez dugu hitz egingo aterki, bufanda, eskularru, estutxe eta gaine-rako osagarri txikiekin gertatzen denari buruz, horrelako asko eta asko galtzen baitira. Aparte aipatuko ditugu apunteak (baita norberak egindakoak ere); izan ere, apunte asko eta asko zaindu gabe uzteak ziurrenik arrazoi psikoanalitiko sakonak izango ditu.

Deigarriena ez da objektu horiek galtzea, baizik eta galdutakoa betiko abandonatzea, ez baitute galdetu ere egiten ea gordeta dauden, jabe lasaiaren zain.

Bada, ordea, salbuespen bat: telefono mugikorra. "Mugikorra galduz gero, berehala etortzen dira galdezka" diote atezainek. Bada hirugarren aldiz tableta ahaztu duenik, eta hirugarrena izan zen erabakigarria inork ez baitzuen atezaindegira eraman. "Konfiantza osoaz etorri zen kontsignan egongo zelakoan; baina ez zuen zortetik izan, hirugarrenean asmatu".

Espero dugu ikasleek materialarekiko duten jarrera "eskuzabal" hori zuzentzea, aintzat hartuta jasangarritasunaren printzipioa eta "baliabide eskasaren administrazioaz" hitz egiten duen "melodia".



# SARRIKO

**Ekonomia eta Enpresa Fakultatea    Facultad de Economía y Empresa**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL